

Julian Sorazu Aginaga

*Getaria,
Gipuzkoa
(1931-2016)*

Aurkibidea

Biografia



Askizu auzoko "Alikante" baserrian jaio, eta bertan bizi izan da beti. Aita eta aitona ere bertakoak zituen; ama, oster, Zarauzko Alleme baserrikoa. Baserritarra izan arren, kostako gauzak ere ondo ezagutzen ditu, sarri joaten zirelako Orroagako harraldera olagarroak, lapak eta itsaskabrek harrapatzera.

Zintak

GET-018

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-11-18
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Baserriaren "Alicante" izenaren jatorria

- **Erref:** GET-018/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:01:56. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Gerra denboran udaletxea erre egin zuten, eta euren baserriaren inguruko dokumenturik ez omen dago. Azpeitiko mojena omen zen lehen baserria. Bertako semea gerra garaian Alacantera joan eta handik etortzean jarriko ziotela baserriari izen hori uste du.</p>

2. Baserriko bizimoduak lan handia

- **Erref:** GET-018/003
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Askizuko bizimodua asko aldatu da kalekoaren antzera. Lehen jende asko bizi zen baserrietan eta bat ezkondu arren, besteek han jarraitzen zuten. Garia egiten zen orduan. Lan handia zuten gariak eta artoak.</p>

3. Lehen etxerako lain egiten zen txakolina

- **Erref:** GET-018/004
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Mahasti gutxi zegoen lehen. Baserri askok zuten mahastia, baina pusketa txikiak, etxerako lain. Gaur egun erosoago lan egiteko prestatuta dago dena. Lehen egurrezko kupelak izaten ziren eta haiek ondo garbitu eta lehortu behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta garai hartan, e, mahastiyak eta bazian?
- Mahasti gutxi. Gurian beti ezautu det, e! Hamen [atekun] ta hor puxketa, beti. Nik hoi beti ezautu det. Hor beste puxketa, ta hemen Agerrekuak beste puxketa hor pixkat hauntxio. Etxetxo pixkat aurrexio. Puxketak, [bujoi] bat eo bi, o... ta gehiena itten zuenak lau o bost eo. Tankera hori.
- Baiña holako...
- Oooooo! Hau uain jarri da, e! Oaiñ hamar urtetik aurea jarri dia habek, hamar hamabi o urtetik honea jarri dia mahasti habek. Ta dana mahastiya ta. [...], gu hemezortzi... ez dia hogei urte o zer dia jarri gendula. Ta beti igual zan. Hor behian jarri gendun aurrena, ta geo pixkat xabalo. Geo hau, geo han goien, aurea.
- Eta mahastiyak ordun? Txikiyak, baiña baserri...
- Mahastiya hauxe, hamen ataian.
- Baiña basarri gehienetan, ez?, izango zan txakoliña ta...
- Bai, gehienetan. Gehienetan puxketa bat, puxketa bat itxeako. Milla litro o, o bostehun litro o... txakoliña, puxketa. Gehienetan bai, danian hemen eongo zan.
- Eta oaingo tankerako mahatsa ta mahastiyak, o...?
- Mahatsa iguala.
- Iguala. Klasia iguala.
- Iguala. Iguala mahatsa. Baiño mahastiya, bueno, Jesus, Maria ta Jose! Ta mahastiyan uain lana dana prepaatuta, ondo jarri dittue terrenuak. Tratoria azpin ibiltzeko, sulfatua emateko, bitzeko, geo atxurtzeko. Ta ondo jarrita. Geo, lan gutxi in. Eoso, lana erraz in. Ta geo itxian lehen berriz barrikak'e... egurrezkuak zian, gaur berriz inoxidablek. Ta, puf... Haiei're hustutzen zinian, garbitu in behar ondo, ondo sekatu. Ta geo hillian behiñian [behittu] ta metxak erre ta behera ta, lizundu iten bestela, ta. [Hontutzen] gero, erariya ona ateatzeko ta. Ateatzen ez zunak, erariya gusto txarrekua ta. Danetik. Ta habek, berriz, inoxidablek, puf!, betetzen dituzu, ta gaiña nahi..., tapak dauzke batzuk. [...] bai ba, baldin baukazu hamar milla litro, o hogei milla litro, ehun milla litro ta gehio itten dituenak eongo dia, ta berrehun'e bai, e!, harrapatzen dittuenak. [...] mahastiyak, txomin-ta-tarren mahasti ikaagarrik dauzke hoiek ta. Barrikak badabe, ba, milla litrokuak ta erdiraiño betetzen da, erdiraiño. Ta, tapa ra! behera bajatu, haizia eman ta itxita geatzen da. [...]. Gustatzen dunak ri-ra! pixkat mangera pasa, ta libre!

4. Lehen lan asko txakolinak; azpi guztia aitzurtzen zen

- **Erref:** GET-018/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lehen mahastiak baxuagoak izaten ziren orain baino. Azpia garbitu egiten zitzairen eta sail guztiak aitzurtu egiten ziren. Gaur egun botika botatzen zaio garbi mantentzeko. Lan handia zuen lehen txakolinak. Sulfatoa ere bizkarrean potea hartuta eman behar izaten zen.

Transkripzioa

- Kontatuko diazu lehen-lehen, e, mahastiyak eta nola zaintzen zian urtian ziharreko lana zein zan?
- Lehen mahastiya, gaiñea baju, bajuak, azpin launa justu samar. Oain hori goian altu, ba al dakizu ze altura daken oain? Lehen baju...
- Eta garbitu iten zian, e, urtian zihar, e...
- Baai!
- ...udabarriyan eta?
- Moztu, lotu, ta geo belarra atxurrakiñ eo segakiñ eo ebaki, ta geo neguan dana atxurtu. Atxurra, bi hankeko atxurrakin, dana [...], dana atxurtu, e! Oaiñ hori're ez dao. Oaiñ rotadorak dauzke, ta ra-ra-ra, atxurtu. Gaiñea zotza're botatzen badue, makinak, este, jata bertan txikitu ta dana deseintzen due bertan. Ta geo rotadorakin danak atxurtu, ta beste batzuk dazke oain rotadora berriyak dia habek. Hola sartzen diyoe, ta blak!, lurra jotzen due, tzau! Ta hau hobia, hori, neetzeko hori. Zaiña gutxiyo ebaki, ta... Baiño lehen... ta, atxurrian! Zeatik, hoitik galdu zian beak, mahastiyak, atxurreako're iñor ez. Ta belarra, mahastiyan gora belarra. Ta oan belarra, botika hau, oan daon botika hau ez baleo, geue itxian aurrena dala, mahastitik gora belarra, e!
- Bai.
- [...], ta hau bezela, garbi-garbi-garbi. Ta, lehen ez zan hori.
- Eta ordun, garbitu ta jorratu ta, neguan izaten da?
- Lehen bai...
- Izaten zan?
- Lehen bai.
- Eta udabarriyan ezer ez?
- Udabarriyak, ba, atxurtu ta lurra. Ta geo udabarriyan ibilli xoxe, baiño pixkat atxurra in ta berdindu, lurra erre, dana hondarra bezela jarri ta.
- Eta udaran?
- Geo, mahastiyak galdu zian, e! Geo galdu zian mahastiyak, bai, ba, iñor ez. Atxurtu in behar, lotu in behar, geo sulfatua eman behar, gaiñea sulfatua're hola, bizkarrian, hola eman behar. Jode! Ba la dakizu ze... Oaiñ ya segi zazu hoiei, potua hartu bizkarrian ta, saillai ematen... Bueno! Ta oaiñ'e hor, hasi gaur eta hamabost eunian eunero jardun hamabost eunian, ta hamabost eun o eman ordu, berriz atzian lixto, emateko berriz'e. Berriz'e sulfatua, saillak, saillak duzkenak, Jesus! Ta uaindik aldautu dao hori're. Oaiñ ya ez dakit.

5. Askizun ikasi zuen doña Maxima irakaslearekin

- **Erref:** GET-018/008
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Askizun bertan ibili zen eskolan, apaizetxean. Logroñoeko irakaslea izan zuen: doña Maxima. Irakasle ona zen eta kaletik ere joaten ziren umeak. Berrogeita sei ume elkartzen ziren, neska eta mutil. Neskei josten ere irakasten zien. Zumearekin eta urritx makilarekin zigortzen zituen eta ez zuen eskolara joan nahi izaten.

6. Elizpean aritzen ziren pilotan

- **Erref:** GET-018/011
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:20:06. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Auzoko beste mutikoekin pilotan aritzen zen elizpean. Abarketak ez puskatzearren, batzuek oinutsik jokatzen zuten.

7. Garoa eta ota erabiltzen zituzten ganaduen azpiak egiteko

- **Erref:** GET-018/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baso gutxi zegoen lehen inguruan. Garoa eta otea segarekin mozten zituzten ganaduari azpigarria egiteko. Goizean goiz jaiki eta idiekin belarretara joaten ziren.

8. Aita "bolantearekin" ibiltzen zen garraioan

- **Erref:** GET-018/014
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:27:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

"Bolantea" radiodun gurpilak zituen gurdia zen. Horrekin egiten zituen garraiatzeak bere aita eta handik irabazten zuen diru pixka bat. Lehenengo kamioiak agertzean bukatu zitzaion lana. Sarritan gatza eramaten zuten eskabetxeriara.

9. Olagarroak nola harrapatu eta hil

- **Erref:** GET-018/016
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa

Laburpena:

Olagarroak makila batekin harrapatzen zituzten. Olagarroa hiltzeko begitartean duen zaina ahoarekin apurtuz gero gozoagoa egoten omen da.

Transkripzioa

- Eta olaarruak eta? Nola harrapatzen zan? Nola harrapatzen dia olaarruak?
- Olaarruak hor...
- Eskuakin o?
- Eskukiñ. Jesus! Hola gaxto samarrak... kakua, baiño gutxi... [...]. Gue anaiak askotan eabiltzen zun harrek kakua. Baiña hola, etorri nahi ez bazun, burua atea ta, ta!, haizuluan, luzatu bai erruak hola, ta burua ixkutuan ta. Eaman, ta tzas!, sartu ta... olaarrua.
- Bestela, eskua sartu ta atea.
- Eskua sartu ta... Eskua sartu ez! Hola... [zihorra] esaten giñun guk, makilla, hurritzekua, harekiñ. Puntan garra, ta amarra o, o bakaillaua o, zeoze [...], ta, tta! zeatzen zan. Ta, rrrrrra!, seituan etortzen zan kanpoa. Burutik rak! heldu hola. Estutzen baziñun, ra!, dana heltzen zun hola, jata, behetik gora! Baiña justu-justu, rak!, ttak!, atea... Ta geo, bi begi eukitzen dittu, eta begi-tartian zaiña. Ta hartu ahuakin ta, krak!, ta, krak!, ra!, seittuan. Ta hobia. Beste batzuk hola, jo ta akatzen duen hoiek... Hesten nunbait odola o, heste, hesteta. Hori gozoaua.
- Biunaua.
- Gozoua. Sangratu iten, itxuraz. Bai! Hori askoek esaten zuen ta. Oaiñ, oaiñ ez. Oaiñ postizuak, ta oain ez da bate. Oaiñ, oaiñ, oaiñ ez.
- Eta ordun hamen, e, inguruko basarriyak...
- Danak, danak olaarrota. Olaarro pilluak ekarri're. Oain geo, uain azkelnaldin'e galdu in zan, [...]. Nunbaitt arrasteruak honeaiño etortzen zian ta jata garbi itten. Hi, ze, horreaiño beste, arrasteruak.

10. Gau-arrantzan kabrak harrapatzen zituzten gehienbat

- **Erref:** GET-018/017
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

Laburpena:

<p>Gauetz ere ibiltzen ziren arrantzan karburoarekin argi eginda. Kabrak harrapatzen zituzten. Nekorak ere egoten ziren, baina paraje txarrean (planea harriak zeuden inguruan).</p>

Transkripzioa

- Eta bestela, beste... ba... nekorak, o...?
- Nekora...

- [...] o... Baztarrian izaten zan beste zer bait?

- Gau-arrantzan'e makiña bat itten giñun guk... Jesus! Launa bagiñun hemen ta, karburuakin. Ta hiru muturreko inda. Gure anaiak tallarrian in, ta hiru... Batek, batekua izaten due karburu potua, karburua sartu behian ta goien ura eukitzen du, eta zuk manejau itten dezu: gehixio iriki, gutxixio iriki. Bere zea ateatzen du: zuuuuuuuu, eoten da. Ta hiruekin, ta argi haundiya. Ta kabreta. Ta holako... Arrankatzia esaten giñun, kertenakin, ta, tzas! bizkarrian, ta zakura. Ttak! han atea, ta...

- Kabrak?

- Kabrak. Ta, [...] zea hori, nekora hori, hemen... oain biberua nola dao Getaian, oain daon molla, atzea hori, hoi zan ona.

- Inguru hori?

- Hori ona, baiña ibiltzea txarra... Jesus! Harraldian, hola, planea esaten diou guk, altua, eta hemendik hara pasa in behar, tartian, ta gero goitik behera jatsi behar. Ta seuru jun ezkeo [...] baiño, ibiltzen bajamar haundiya behar ondo ibiltzeko. Gaiña jarri uain pentsatzen, jata, guk ibiltzen giñun bala, nik neure buruai esaten diyot, guk ibiltzen giñun bala, e! Ta oaindik ez diyo gaiña esan izango iñuik juteko're. Esango diyoe, "ez jun, paraje txarra dek eta". Hala're jun ingo dia, baiño...

- Eta nola esan dezu, harri zapal hoiei nola esaten diyezue?

- Planea.

- Planea?

- Planea, guk planea esaten diyeu.

- Planea.

- Planea. Hola eoten dia hoiek, planean. Oso toki txarra zan hori. Ta jun ezkeo, zea, nekora hori asko.

- Hola, e..., harraldietan eta dian, e..., harri hauek, ez? Zapal-zapal, goitik beherakuak...

- Hemen ez da, hemen gutxi da. [...] eta honea gutxi da. Bajuak, bai, harri... Hor zean dia hoiek, lehen esan deun San Anton mendiko...

- San Anton atzekaldian, bai.

- Hor, hor, hor! Ta tuneletik hauntza're badabe hor, tuneletik hauntza bajamarren daunen ikusiko zendun hola...

- Bai, bai.

- ... haen azpin ibilita gea gu! Gau-arrantzan, bajamar haundiyakin. Ta akordatzen naiz, batian jun ta, hiru kabra harrapatu giñun, ta beste ze?... ihesi! Dezente zeon. Ihesi, ra! Dios! Hura're hantxe gora, ta bildurra ta, hantxe gora. Behera jun, ta, peligrosua! Peligrosua.

11. Ilargiak badu zerikusia gau-arrantzarako

- **Erref:** GET-018/018
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:35:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

<p>Non egoten ziren kabrak. Lazuna zikina zegoen lekuetara biltzen zen, baina beraiek ez zuten harrapatzen. Behin sei kilo pasako aingira harrapatu omen zuten. Debako Sakonetara ere joaten ziren kabra txikiak hartzera. Ilargiak badu zerikusia gau-arrantzarako.</p>

Transkripzioa

- Geo, bestia, txilinduna o, badao, ba, Getaian? Txilinduna o, behian, nola daon, ta cruz roja o, zer dao hor? Hoi dana harraldia, itsasua zan hoi dana, harraldia. Ta goian mataeia. Ta geo, goiko, herriko zikiñak'e asko hara joten zian, horrea, ta. Han kabra asko harrapatzen, harrapatu giñun. Baiña geo, sartu [ziyeun] dios!, zikiñeko're gauza, ta ez zikiña zabelako hua, baiño zikiñeko zea. Ta ez giñan joten geo, gerora, azkenaldea. Ta, lazuna're zenbat dao? Lazuna're zikiñea ibiltzen dia.

- Bai.

- Gu ez gendun lazuna harrapatzen. Harrapatu izan gendun hola, baiño... Angira batian harrapau gendun, hortxe [...] esan deten zea hortan...

- San Antongo...

- San Anton biberoko... Hoiek harraldia zan, ba, dana, ta. Goien ez zan, behero zan hor planea hori. Goi-goien ez zan, behero barra, ta. [...] gora joten zanian, goien'e dana agortu itten zan, ta. Angira bat harrapatu gendun sei kilo, iya zazpi o hola eskas o, angira haundiya. Hura behera jun da, potzuzuloa, [...], atea gendun.

- Sekulakua, ez?

- Bai. Baita gu hor zea aldera joten giñan, Debako zea're. Hor Deba aldian, Itsas..., hor zea horta.

- Itsaspe azpiyan?

- Horrea, bai. Hor, nola esaten diyoe, Itsaspe ta...

- Sakoneta...

- Sakoneta, horrea're bai. Hor kabra txikiya. Txikiya hor kabra. Habetan handiyagua. Gorri hori [...], ta beste marros... marroia itten dun hori da haundiyena. Baiña gorriya, gorriya. Gure ama zanak earki prepaatzen zun hemen, de dio! Gozua jaten, haren saltsa!

- Eta hori beti gau-arrantzan.

- Gau-arrantzan. Aurrenengo junaldiyan gehien harrapatzen gendun, ta geo hurrenguan gutxiyo, ta hirugarrenekua gutxi. [...]...

- Bai...

-... o illargiyak itten ziyon, o ez dakit ze...

- Inportantia izaten da illargiya?

- Bai. Illargiya berriyan gehiena. Illuna're eoten da, ta ikusi're itten da. Ta illargiya haundiyakin, dio! Argik beak'e... Hola gure kontuak gazte denboakuak.

12. Inguruko ospakizunetara bizikletan

- **Erref:** GET-018/019
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:35:18. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Meagara joaten ziren asko erromeriara. Barrentzo soinujoleak jotzen zuen bertan. Beste inguru batzuetara ere joaten ziren. Gerora bizikletan joaten ziren erromeriara. Inguruko ospakizunak zeintzuk ziren (San Martin, San Prudentzio...)</p>

13. Garai batean apustu asko egiten zen

- **Erref:** GET-018/021
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:38:58. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Lehenago San Martinetan ahari-jokoak izaten ziren, baina bestelako ospakizunak ez. Bere aurretik apustu asko egiten omen zen idi-demen inguruan. Apustu baten inguruko kontuak.

14. Euskara aldatu egiten da kaletik baserrietara

- **Erref:** GET-018/022
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:41:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Inguruko herrietan (Zarautz, Zumaia, Getaria..) bakoitzean hizketa diferentea egiten da. Getarian ere aldea dago kaletik baserrietara.

Transkripzioa

- Eta, e, euskera aldetik eta, zuk, e, igartzen dezu Zumaiko euskera, Askizukua... diferentia al dia? Getaikua, hemengua, Zumaikua?
- Zaautzkua're!
- Zaauskua?
- Oriyokua're bai. Ta Motriko [...], Itziar ezkeo berriz'e difeentia. Ta Deba ta hor behera ezkeo, gehio.
- Eta Getaikua? Askizukua ta kalekua difeentia al dia?
- Askizukua ta hor, e, frontoietikan o gora, ya hamengua bezela itten due. Hortik beherakuak...
- A bai, e? Erregieta kalia hemengua.
- Bai. Erreitta kalia beheia da, baiño hor gora, zeara, Indaux ta...
- Bai.
- ... hortik honeo, gora, oan beheku'e gora etortzen dia, ta... Baiño hor lehen, hor zeatzen zan, aklaatzen zan gehiena: ttak!, goikua dek o beheku dek.
- Horko baserri batzuk.
- Zean, kalia, kalia bertan. Baiño kalen, uain itxe asko dao hemen goien, baiño lehen gutxi zan, ordio. Baiño ezaun, e! Bai. Getaia're "itsasora", ta. Zumaia're beste hizketa bat, eta zaautztarrez "sasitan", ta oriyotarrak berriz, beste... difeentia, difeentia! Bai, bai. Heritik herrira difeentia...
- Bai, bai.
- Bai, bai.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com